

Prentsa oharra

Nota de prensa



Haur Danborrada indar osoz egingo da berriz ere

Guztira 4.731 haur ibiliko dira hiriko kaleetan zehar Sarriegiren martxen doinuak interpretatuz

Donostiako alkate Eneko Goiak, Kultura zinegotzi Jon Insaustik eta Haur Danborradako pertsonaiek bi urteko etenaldiaren ondoren, ilusioz eta indarrez beteta itzuliko den danborrada aurkeztu dute. Guztira, 4.731 haur ibiliko dira hiriko kaleetan zehar, Sarriegiren martxak interpretatuz. 41 dira parte hartuko duten ikastetxe edo elkarteak, eta 48 konpainiak.

Aurtengo Danborradak, gainera, bi kide berri izango ditu. Batetik, Unión Artesana Elkarteko UA150 Haur Danborrada gehitu da bezperan atera izan ohi direnei, eta bere lehen irteera urtarrilaren 19an, 18:00ak aldera egingo du. Bestetik, 20an bertan, Amassorrain Ikastolako Danborrada estreinatuko da.

Azken urteotan bezalaxe, Haur Danborradarekin batera karroza handi bat aterako da. Bertan XIX. mende hasierako gizarte zibileko pertsonaiak egongo dira. Aurtengoan Zurriola Ikastolako hurrek interpretatuko dituzte alkatea, notarioa, Donostiako bi hiritar (neska eta mutila), batelaria, arrantzalea, inudea, artzaina, irulea, dendaria, uketaria eta mandazaina. Karrozaren aurretik, 6 palafrezainek desfilatuko dute Kalesan.

Orixe Ikastolako Paul Martínez Pey izango da Danbor Nagusia, Haur Danborradako agintari nagusia. Berak zuzenduko du Udaletxetik abiaraziko den danborrada eta berak emango dio hasiera Sarriegiren martxak Zentroko kaleetan zehar interpretatuko dituen desfileari.

Udaletxeko balkoitik Haur Danborradari hasiera emateko bi laguntzaile izango ditu Danbor Nagusiak: Jenerala eta Laguntzailea. Zurriola Ikastolako Irati Martinez eta Unai Barros izango dira aurtan pertsonaia hauek interpretatuko dituztenak.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Jeneralaren eta Laguntzaileran figurak Danborradaren hasieran sortu ziren, 1961ean. Euren jantziak bertan parte hartzen duten konpainia guztien jantzietatik bereizten dira, eta ibilbidea zaldi gainean egiten dute.

Baldintza meteorologikoak txarrak badira

Haur Danborrada bertan behera uzteari buruzko jakinarazpen ofiziala urtarrilaren 20an egingo litzateke, 10:30ean gutxi gora behera, mezu bidez. Gainerako informazioak ez lirateke ofizialak izango.

Urtarrilaren 20an eguraldiak uzten ez badu, irteera igandean egingo da, urtarrilaren 22an. 22an ere ezin bada egin, Udalak beste une batean egiteko aukera aztertuko du.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 13an